



## LESAKA

### **Prozedura exekutiboko egitateen jakinarazpena** **Erreferentzia: E153000/000011/2018**

Kasu bakoitzean espedientean aipatzen diren arrazoiengatik, ezin izan da egin Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 99. artikuluko 2. idatzi-zatian agindutako jakinarazpena. Horregatik, Foru Lege horren 99. artikuluko 4. idatzi-zatiak agintzen duenari jarraikiz, ediktu hau argitara ematen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta dei egiten zaie ondoko interesdunei, bulego kudeatzailerara ager daitezen (Iruñeko Iñigo Arista kalea, 16 - etxabea, astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu bietara), Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epean, berak zuzenean edo behar bezala ordezkatuta, jakinarazpena jasotzeko. Eta aditzera ematen zaie ezen, epe hori betetzen denean agertu ez badira, egintza horiek jakinarazi zaizkiela ulertuko dela, ondorio guztietarako, epea bete eta biharamunetik.

Zegapekoei ohartarazten zaie: premiamenduzko prozeduraren edozein tramite jakinarazitzat jotzen denean, ez interesdunak ez haien ordezkariak agertu ez direlako, jakinarazitzat joko dela premiamenduzko prozedurak egiten diren hurrengo jarduketetan eta jardunbideetan, nahiz eta ez duten galduko beste edonoiz agertzeko eskubidea.

Administrazio-egitate horren aurka honako helegiteetako bat jar daiteke hautaz:

- a. Berraztertze errekurtso, egintza eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- b. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Lesaka, 2018ko Uztailaren 31n.

Diru Biltzaile Exekutiboa,



Mikel Arrechea Lasaga.

Izena	Espediente	Jakinarazpen	JM
ALBERDI LARRUSCAIN JOSE IGNACIO	15250169	1935762018	CC
APEZTEGUIA LARRALDE PEDRO MANUEL	72630320	1847262018	CC
BAZERRICA MIGUELTORENA MAITE	44639513	1840742018	CC
CASTRO ZUBIETA AITOR	15260903	1796052018	CC
GARCIA FERNANDEZ EVA MARIA	52464201	1921282018	CC
LARRALDE GAZTELUMENDI NICOLAS	15855958	1803442018	CC
LECUONA ARANETA SARA	15253968	1795952018	CC
MACICIOR ZUBIETA ANA ISABEL	72668764	1849302018	CC
MENTABERRI BERGARA JESUS	72668479	1849282018	CC
OLASAGASTI OCHOTECO JOSE MARTIN	72673113	1849712018	CC
SANCHEZ SANCHEZ OSCAR	72679883	1850582018	CC

Zutabeko gakoak JM (jakinarazpen mota): CC Banku kontuak bahitzeko eginbideak, SM Lansariak eta soldatak bahitzeko eginbideak, DF Zerga itzulketak eta/edo nafarroako gobernuak aitortutako kredituak bahitzeko eginbideak, CA Kredituak bahitzeko eginbideak, RB Ondasunen eta eskubideen errekerimendua, CF Ordainketa zatikatua onartzea